



Zaldi Ero

**A**ndolin Eguzkitza euskaltzaina bihurtzekoak jota zendu zen martxoaren 23an, Basurtuko ospitalean. Santurtzin jaio zen, 1953ko abenduaren 6an. Deustuko Unibertsitatean Filologia Erromanikoa ikasi eta, 1975ean, Salamancara joan zen, Koldo Mitxelena zenaren ondoan ikasketak jarraituz. 1991n izendatu zuten euskaltzain urgazle eta 2001eko martxoaren 31n, berriz, euskaltzain oso, Luis Villasanteren orde. Unibertsitateko irakasle eta idazle, hainbat literatur lan argitaratu zituen. Euskararen Aholku Batzordeko kidea (1996-2002) izan zen. Euskal Idazleen Elkartearen lehendakari ere izan zen.



**E**usko Legebiltzarrak Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Estatutuari dagokion lege berria onartu zuen 2003ko abenduaren 22an. Honen VII. kapituluaren zehazpenen bidez, kontsumitzaileak ondasun eta zerbitzuei buruzko informazioa euskaraz jasotzeko eskubidea du. EAEn kokaturiko enprekin erabiltzaileak dituen harremanetan, ofizialak diren bi hizkuntzetan edozein erabiltzeko eskubidea du erabiltzaileak. Legearen arabera, establezimenduetako errotulua, oharrak eta publizitatea, euskaraz eta gaztelaniaz eman behar dira. Eta kontsumitzaileak betetzeko diren inprimaki eta eredu ofizialak (fakturak, adibidez) bi hizkuntzetan eskaini behar dira. Legea onarturik, aurtun bertan hasiko da Eusko Jaurlaritza legea hezurmamitzen.



**E**sku-Eskura. Oinarriko komunikazioa euskaraz liburuxka eta CD-a kaleratu dute Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza eta HABEK. Komunikazioan gehien erabiltzen diren euskarazko esaldiak biltzen dira bertan: agurrak, ohiko galderak, zenbakiak... Ondoan, gaztelaniazko, frantsesezko eta ingelesezko itzulpenak ageri dira.

**A**pirilaren 28an kalean izango da **Gazteberri**, gazteentzako informazio aldizkaria. Leizaola Elkarteak *Unibertsitateko Aldizkari*arekin batera landu du proiektua eta gazteriari zuzendurik dago. Euskal Autonomia Erkidegoan ez ezik, Nafarroan ere zabalduko da, bertako unibertsitateetan, gazte informazio bulegoetan, udal biblioteketan eta bigarren hezkuntzako ikastetxeetan. Egunkari formatua izango du eta hileroko kaleratuko da.

**E**AEEn gero eta erakunde gehiagok dute onartuta eta abian Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia. Une honetan, 37 erakunde (35 udal eta 2 mankomunitate) dabilta lanean Plan Nagusia onartu ondoren. 503.888 biztanle bizi dira udalerri horietan, eurentatik 192.834 euskaldunak direlarik. Badi-ra, gainera, beste 22 erakunde (21 udal eta mankomunitate 1) Plana prestatzen ari direnak; horien lana amaitutakoan, 1.119.771 biztanleko eremua hartuko dute EBPN onartuta duten erakundeek, eta horietatik 351.113 izango dira euskaldunak.



Zaldi Ero

EBPNri esker, udalek, Eusko Jaurlaritzarekin eta Foru Aldundiekin elkarlanean, euskara biziberritzen laguntzeko konpromisoa hartu dute, hiru helburu gogoan: batetik, euskarak jarraipena izatea; bestetik, euskara gero eta esparru gehiagotan erabiltzea eta, azkenik, euskarazko jarduna gero eta opa-roagoa eta kalitate handiagokoa izatea.



Mugak gaintuz, geuria indartu, horixe da Eskola Publikoaren XIII. Jaia izango duen leloa. Ekainaren 6an egingo da Bilboko Etxebarria parkean eta atzeritarren seme-alabek hezkuntza euskaraz jasotzeko duten eskubidea aldarrikatuko dute bertan. Nafarroan ere egingo da Euskal Eskola Publikoaren Eguna. Ekainaren 9an izango da, Iruñeko Tacонера parkean, *Euskarari bidea eginez* lemapean. Sortzen Ikasbatuaz elkarteak antolatzaile. Elkarte honek berak, *Kontu Tikiak* lana argitaratu du, umea lotaratzeari, jaten ematerakoan edo min hartzen duenean mainak euskaraz egiten erakusteko guraso eta hezitzaileei.

Juan Zelaia beka emango du Kulturaren Aldeko Euskal Fundazioak, musika eta euskara uztartzen dituen egitasmoentzat. Eresbil Musika Artxiboak kudeatuko du beka eta bi urtez behin emango da. 6.000 eurokoa da eta irabazleak urtebeteko epea izango du egitasmoa gauzatzeko.



Euskal kultura sustatzeko zentroa abiarazi dute Boisean (Idaho, AEB). Cenarrusa Center of Basque Studies izango da, 30 urtean Idahoko Estatu Idazkari izan zen Pete Cenarrusaren omenetan. John Bieter euskalduna izango da zentroaren zuzendari, hau da, Boiseko alkate den Dave Bieterren anaia. Helburua, euskal kultura, hizkuntza eta ohiturak AEBetan bizirik irauaraztea.

2002ko liburu ekoizpenaren datuak kaleratu ditu Joan Mari Torrealdaiak *Jakin* aldizkariaren 140. zenbakian.

Datuen arabera, euskarazko liburuen ekoizpena hazi egin zen 2002an, nahiz eta tiradak murriztu. Torrealdaiaren aburuz, bestalde, "liburugintzaren krisiaz" ez baina "arazoaz" hitz egin beharra dago eta, besteak beste, edizioaren atomizazio eta barreaketaz.



40 urte betetzen ditu aurtengo Gasteizko Antso Jakituna Fundazioak. Urtemuga ospatzearekin batera, ondare dokumental handia jarri du ikusgai Gasteizko Vital Kutxa aretoan, *Liburuen etxea* izeneko erakusketan. Liburu katalogoa ere argitaratu du fundazioak, erakusketako argitalpen guztiak biltzeko, azterketa historiko eta dokumentalarekin batera.

Oraindik ere sortu zeneko helburu berberak ditu: euskal kulturari buruzko dokumentazioa bildu, ordenatu, zaindu eta ezagutzera eman. Ibilbide luze horretan euskal dokumentazioaren fondo aberats eta osatuenetako lortu du: 300.000 dokumentu baino gehiago ditu erakundeak, XV. mendekoak dira zaharrenak eta gaur egungoak, aldiz, berrienak. Haur literatura, pintura, hizkuntzalaritza, arkitektura, zientzia, erlijioa, gastronomia, politika eta bestelako gai asko lantzen dituzten agiriak gordetzen ditu.

Antso Jakituna Fundazioak Gasteizko Senda pasealekuan du egoitza, Zulueta familia aberatsaren bizileku izandako jauregian.

Bertan eskuragai denaren berri nahi izanez gero, jo [www.fsancho-sabio.es](http://www.fsancho-sabio.es) helbidera.

Juan Perez Lazarragak XVI. mendean idatzirik eskuizkribuak jautzia ekarriko du euskal hizkuntzalaritza eta letretan. Eskuizkribuak 51 orri ditu, prosa eta poesia profanoen inguruan idatziak, eta Arabako euskararen ezaugarriak ditu. Gipuzkoako Foru Aldundiak erosi du 66.000 eurotan eta Donostiako Koldo Mitxelena Kulturunean gordeko da. Aldundiak, dena den, ikerlari eta zale guztien eskura jarri du Interneten [www.gipuzkoakultura.net/lazarraga](http://www.gipuzkoakultura.net/lazarraga) helbidean.



Eleaniztasunari buruzko ikerketa kaleratu du David Lasagabaster UPV-EHuko Ingeles Filologia Saileko irakasleak. *Trilingüismo en la enseñanza* da lanaren izenburua eta, bertan, ikasleek curriculumeko hiru hizkuntzekiko duten hizkuntz jarrera aztertzen du egileak.



Bizkaiko euskararen gaineko argitalpen berria. Kaleratu da *Bizkaiko euskararen esaldi eta testu ereduak* lan praktikoa. Irakaslearen liburua, ikaslearena eta CD-a ditu eta bizkaiera lantzeko material guztiz praktikoa da. Mendebalde Kultur Alkartearen lana da.

Europar ondoen diseinaturiko egunkariaren saria jaso du *Debagoienako Goienkariak*. Martxoaren 29 eta 30ean Vienan egin den Europako Newspaper Congress izenekoan jaso du saria. Berri gehiago Interneten: [www.newspaperdesign.de](http://www.newspaperdesign.de) eta [www.snde-e.org](http://www.snde-e.org) helbideetan.

Labayru Ikastegia du aztergai *Euskonews & Media*-ren 248. aleak. Bertan ([www.euskonews.com](http://www.euskonews.com)) Ander Manterola, Ikastegiko zuzendariari egindako elkarrizketa dugu irakurgai, bai eta Labayru Ikastegiaren historia eta ekimenen gaineko artikulua ere.





## LINGUANET, lan munduko hizkuntza plangintzari buruzko ikastaroa

**H**izkuntza Politikarako Sailburuordetzak eta Eusko Ikaskuntzaren Asmoz Fundazioak elkarlanean antolatutako ikastaroa da LinguaNet. Helburua, berriz, esparru sozio-ekonomikoan euskararen erabilera normalizatzeko lanetan ari direnei formazioa ematea. Erakunde pribatuetan euskara-planak diseinatu eta gauzatzeko oinarritzko ezagutza ere emanago da. Ikastaroa euskaraz eskainiko da eta 50 ordu izango ditu: 40 orduz saio teorikoak, Interneten bidez eta 10 orduz saio praktikoak, simulazioetan oinarrituta. Informazio gehiago Eusko Ikaskuntzaren Asmoz Fundazioan (hiznet@infonegocio.com / Tel. 945233420).



## Euskalduntze-alfabetatzearen etorkizunerako oinarriak, eraginkortasunari eta kalitatea hobetzeari begira



**K**alean da Euskararen Aholku Batzordeak (EAB) *Euskalduntze-alfabetatzearen etorkizunerako oinarriak, eraginkortasunari eta kalitatea hobetzeari begira* izenarekin prestatu eta onarturiko txostena. Bertan, EAB-k euskal hiritar guztiei, eta, bereziki, euskalduntze-alfabetatzearen esparruan diharduten eragile publiko zein pribatuei zuzendutako aholku-proposamenak daude jasota.

Jakina denez, EAB Euskararen Legean aurreikusitako harreman-organoa da, hizkuntza normalizatzeko diharduten erakunde publiko nahiz pribatuen ahaleginak eta ekintzak aztertze, bideratzeko eta koordinatzeko sortua.

Bere egitekoari heldu bezain laster, EAB-k berriaz azpimarratu nahi izan du helduen euskalduntze eta alfabetatzearen garrantzia. Berau, euskal irakaskuntzarekin batera, euskararen berreskurapenaren inguruko ekinbiderik eta mugimendurik garrantzitsuena izan da. Horren lekuko dira euskaltegiek gizartearen eskutik jasotako oniritzia eta aitortza zabalak.

Egindako bide luze eta oparoa aztertu ondoren, EAB-k helduen euskalduntze-alfabetatzearen eraginkortasuna eta kalitatea hobetu beharra hobetsi du, ahalik eta eperik laburrenean hizketarako gai diren euskaldunak lortzeko asmoz. Hauek dira, laburbilduz, egindako neurri-proposamenak:

- Gizartearen eta ikasleen beharretara egokitu behar irakaskuntza, xede-taldeak ondo identifikatuta.
- Ikas-prozesuaren eraginkortasuna bermatzeko neurriak.
- Aitortza-sistema egituratu eta jarri beharra abian, kanpo ebaluazioaren bidez.
- Finantzazio-bide berriak sustatu beharra, ikasleentzako emaitzetan oinarritutako dirulaguntzei gero eta pisu handiagoa emanez.
- Ikasmaterial egokituak eta berezituak prestatu xede-taldeen beharrei erantzuteko.
- Xede-talde berezien beharrei aurre egiteko irakasleak prestatu beharra eta azpiegiturak (teknologia berriak, ikas-materialak) sendotu beharra.
- Euskalduntze-alfabetatzea erabilera sustatzeko osagai den neurrian, zubiak eraiki beharra euskalduntze-alfabetatzearen eta gizarte-erabileraren artean.
- Motibazioa eta sentsibilizazioa landu beharra.

Gaia bertatik bertara ezagutu nahi izanez gero, jo goian adierazitako liburura edota Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzara.

**Euskararen Berripapera** zure etxean doan jaso edo ezaguneri bati bidaltzea nahi baduzu, idatzi helbide honetara:

### Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Donostia-San Sebastián, 1  
01010 Vitoria-Gasteiz (Araba)  
Tel.: 945 01 81 16  
e-posta: l-Sosoaga@ej-gv.es



Euskara



Gaztelania

Izen-deiturak: .....  
.....  
Helbidea: .....  
.....  
Herria: .....  
kodea: .....Lurraldea:.....  
Tel.: .....  
e-posta: .....